

“Indioek bezala ez dut hitz egin nahi”

GURASOAK ESPAINIATIK etorri ziren 1950eko hamarkadan, beste asko bezala. Gipuzkoako herri batean aurkitu zuten ostatua, baserrian. Seme-alabek beti entzun dute inguruan jendea euskaraz. Seme horietako batek %80ak baino gehiagok euskara dakien herria aukeratu zuen aspaldi bizitzeko. Herriko saltsa guztietan ibili ohi da, kolore, zaletasun eta adin guztietako jendearekin. Ez diot inoiz euskaraz entzun (hitz solteren bat ez bada). Herri-
tar bakarra entzun dut gizon horri euskaraz egiten, duela urte batzuk euskaltegian izena eman baitzuen.

Herri-
tar bakar hori irakaslea zen, noski.

Mendian, euskaldun petoen koa-drilan, gaztelaniara aldatzen dute (nik gaurtik aurrera ez) bera aurrean dagoenean. 50 urtetik gora dituen lagun honek dio ulertzen duela eta lasai hitz egiteko euskaraz. Ez da hala ordea, ez du ulertzen, behin baino gehiagotan frogatu duenez.

Bigarren aldiz euskaltegian izena eman du. Esan dit berak badakiela indioak bezala hitz egiten, baina horrela hitz egiterik ez duela nahi. Nik esan diot indioak bezala hitz egiten ez badu, sekula ez duela ondo hitz egiten ikasiko, a, eta zabaltzeko herrian euskaraz egin nahi duela! Bigarren aldiz euskaltegian eta inork ez dio euskaraz egiten...

BAHEA

Benito Fizek bere blogean Enric Serra i Casals blogariak (www.uab.cat/servei-llengues) idatzitako pasarte bat itzuli du: “Bellaterra Eskolara joan naiz gaur. Zer esanik ez seigarren mailako maistraren gonbidapena berehala onartu nuela; seigarreneko neska-mutilak Estatuko hizkuntzen aniztasuna lantzen ari dira-eta. Bi mezu bidali nahi izan dizkiet.

Lehenengo: hizkuntza erromaniko guztietatik hurbil gaude, oso hurbil. Ez da onargarria adibidez galiziera edo aranera ia ahaleginik gabe ez ulertzea. Hain hurbil ditugun hizkuntza hauei guztiei ezin diegu geure burua itxi. Geure neba-arrebak, senideak eta familia ezagutu nahi ez izatea bezala izango litzateke hori.

Bigarrena: euskara ez da hizkuntza itxia, zaila, arrotza eta ezinezkoa, eta bertara hurbiltzeko ahalegina egin behar da. Ez jarriztasunez hitz egiteko seguruenik, baina bai guretzat arrotzak izaten jarrizterik nahi ez dugun hainbat erreferentzia hobeto ulertzeko.

Jakin nahi dugu Athletic-eko Etxeberria jokalariairen abizena katalanez ‘Casanova’ esango litza-tekeela; ulertu nahi dugu autobi-deetan ikusten ditugun Azkar kamioi urdin horiek ‘rapids’ direla. Lehendakari hitzean “lehen” (‘primer’) identifikatu nahi dugu akaso; paseoa egin nahi dugu Kataluniako Pirinioko herrietan jakinda hango toponimo asko euskal jatorrikoak direla”.

Ur Apalategik *Berrian* esanak: “Garbi dagoena da euskal literatura Atxagaren sariaz geroztik aldatu egin dela funtzionamenduan. Lehen, bere akats eta muga guztiekin, sistema buru askia zen, edo bederen autozentratua. Euskal idazleen arteko hierarkia euskal munduko idazle, irakurle eta kritikoek egiten zuten”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAI AN

Enplegu politikak

EAJ eta Lopezen Gobernuak liskarrean dabilta enplegu politiken transferentziaren ondorioz. Biak, funtsean, gehiago ari dira eztabaidatzen epeen kontuagatik –urtarrila edo iraila– benetako edukiagatik baino –enplegurako politika osoak, hau da, aktiboak eta pasiboak–. Lopezek kasketa hartu du Madrilgo Gobernuak enplegurako politika aktiboak negoziatu dituelako EAJrekin, Aurrekontuak babestearen ordainetan, eta Lopezekin eta bere Gobernuarekin ezikusiarena egin dutelako. Sindikatu abertzaleak izan dira, hala ere, PSOEn Gobernu eta EAJ salatu dituztenak, ez doazelako mamira.

Langileak eta enpresariak dira Estatuko kutxari beren prestazio eta pentsioentzako dirua ekartzen diotenak. Enpleguari dagokionez, EAEko langileek eta enpresariak 1.130 milioi euro kotizatu zituzten 2007an eta langabeziaren gastua 594,54 milioi eurora igo zen. Horrek esan nahi du Espainiako Estatuko kutxan 536 milioi geratu zirela. Gizarte Segurantzaren antzekoa gertatzen da: 2007an 6.165 milioi euro bildu ziren eta pentsio-etako gastua 5.745 milioi euro izan zen. Gauzak horrela, enplegu politika aktiboak transferitzeak, politika pasiboak ere ekarri behar ditu berarekin, hala nola haiekin zer egin eta nola finantzatu erabakitzeko gaitasuna. Eta Euskal Herriari dagokio politika horiek kudeatzea. Madrilgo edo Gasteizko nahiz Iruñeako sukurtsalen eskuetan uzteak, esan nahi du finantzatzen jarraitzea enpresari eta sindikatu espainiarrak, edota EAEko nahiz Nafarroako euren sukurtsalak. Hauek oso gustura daude eredu horrekin, beren finantzazio milioidunarentzat balio duelako. Gure subiranotasun politiko faltak, beste behin ere, Madril edota Parisen menpe egotera eramango gaitu.

Juan Mari Arregi